

Gernika eta Foronda ez ziren hain urruti

ELUR PILOTAK handitzen jarraitzen du eta bake prozesu berri hau ere itxura hartzen ari da apurka, hori bai bakoitza bere rolean murgilduta, baina hurbilpen urratsak emanez. Salbu eta PSOEren eta PPren kasuan, jakina. Baina bloke honetan ere, lehenago edo geroago, sortuko dira pitzadurak. Honek guztiak duen itxurarekin, oso gaitza da Jose Luis Rodriguez Zapateroren zapadoreak Moncloan gelditu daudela irudikatzea. Hori bai, denak adierazten du ez dela mugimendu niminoena gertatuko ETak armak uzteko erabateko konpromisoa hartu arte.

Hori litzateke logikoena, azken 30 urteetan ETarekin behin eta berriro hitz egin duen PSOEek berak borobiltzea jokaldia, ETaren historiaren amaiera poltsikoratuz eta Espainian behar bezala salduz. Hori da, seguruenik, 2012ko Espainiako hauteskunde orokorrekin begira duen heldu leku sendoenetakoa. Hori da logikoena bai, bestelakoa da nola eragingo duen egungo PSE-PPren tandemak logika horretan.

GERNIKAKO ITUNEAN ezer berririk ez dagoela esatea –EAJk egin duen bezala– ez da serioa eta egiazkoa ere ez. *Zutik Euskal Herria*-k argi adierazten du borroka armatuareki-

koak. HBk eta Batasunak eskatu izan dizkiote su-etenak ETari –beti ere ahots txikiarekin–, baina behin ere ez ondoren etorri behar duena desagerpena dela azpimarratuz: “jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa”.

Eman beharreko urrats garrantzitsua da Gernikako Ituna, ETak nazioarteko eragileei baieztokarekin erantzuteko ezinbestekoa. Hori izango baita prozesu honetako hurrengo urrats handia. Ordura arte, ongi etorriak izango dira emango diren pauso guztiak, baina euskal gizartea orain Bruselako Adierazpenari luzatu beharreko baieztokaren zain dago.

ETA-K EZ DU argi hitz egiten oraindik, baina bai gero eta argiago. Irailko hiru agerpen publiko garrantzitsuetan –bi agiriak eta elkarriketa– bada eboluziorik, bai hizkuntzan eta

ETA ‘Zutik Euskal Herria’ agiriari buruz: “ETak ez luke bere egingo hitzez hitz, baina ados gaude ebazpen horretatik eratortzen denarekin”

baita edukietan ere. Eta esango nuke elkarriketan ETak garai batean Elkarrik ere maiz erabiltzen zuen “anbiguetate eraikitzaile” hori darabilela, bere ohiko mezuei halako esaldiak gehituz: “Protagonismoa aldaketa bultzatzen ari diren eragile politikoena da”. Edo *Zutik Euskal Herria*-ri buruz dioena, eta agian elkarriketako esaldirik garrantzitsuenak dena: “ETak ez luke bere egingo hitzez hitz, baina ados gaude ebazpen horretatik eratortzen denarekin”. Eta esaldi honen indarra kontrajartzeko beste asko badaude ere –baldintzei buruzkoak adibidez– hori bera bakarrik itzela da, denok baitakigu zein den *Zutik Euskal Herria* ebazpenaren mezu nagusia: independentzia bide politiko eta demokratikoetatik. Beraz...

EAJ ALDIZ, argi mintzo da *Ados* agiriaren bidez eta, funtsean, oinarrikoena dena aipatzen du: ETA desager dadila, politikaren ateak denontzat ireki daitezela, indar politiko guztien arteko akordioa eta erabaki eskubidearekiko begirunea. Taularatzeak eta interesak oso desberdinak izan arren, gatazka honen ebazpenerako mamian, Gernika eta Foronda gertu izan dira asteburu honetan.

Zure itzulpen eta argitalpen lanetarako zerbitzu integrala

- ✓ Hizkuntz eskaintza zabala
- ✓ Argitalpen lanak
- ✓ Zerbitzu integrala: itzulpenak, zuzenketak, diseinua, maketazkoa, inprimaketa...

finès
french
euskara
englantti
espagnol
catalonian
suomi
basc
català
finnois
français
anglès
catalàn
français
castellano
finnish
inglés
basco
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

Narkis Balentziaga, 2. 20749 Arroa (Gipuzkoa) Tel.: 943 148 306 Faxa: 943 897 380
bakun@bakun-itzulpenak.net www.bakun-itzulpenak.net